e) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren % 10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez betetzearen arrazoiak eta ez betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.

e) El incumplimiento de las obligaciones de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y otras políticas sociales conllevará la pérdida del derecho al cobro y/o el reintegro parcial de hasta un máximo del 10% de la subvención concedida. A la hora de determinar para cada caso concreto el porcentaje de la subvención concedida dentro del límite máximo indicado, se aplicará el principio de proporcionalidad atendiendo a los siguientes criterios: las obligaciones incumplidas, la entidad de las mismas, la actuación de la persona beneficiaria tendente o no a su cumplimiento, las causas del incumplimiento y como afectan dichos incumplimientos al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

f) Hitzarmen honetan ezarritako gainerako betebeharrak ez betetzeak emandako dirulaguntza osoa edo zati bat galtzea ekarriko du, bertan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera finkatuko da, ez-betetzeak lortu nahi den helburuko duen garrantzia eta interes publikorako duen kaltea kontuan hartuta.

f) El incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en el presente convenio conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que en ellas se disponga y, en ausencia de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público.

Zazpigarrena. Jarraipen zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak.

1. Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.

2. Gainera, bildu diren alderdiek Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea eratzea adostu dute; batzorde hori hitzarmenaren helburuak lortzeko beharko diren lankidetzarako eta koordinaziorako tresna izango da.

3. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea hiru ordezkarik osatuko dute. Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa, Lurralde Lehiakortasun eta Kanpo Sustapena Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularra edo hark eskuordetutako pertsona, lehendakari gisa, eta Fundación Industrias Creativas-en ordezkari gisa, lehendakaria edo hark eskuordetutako pertsona, kide gisa. Era berean, Jarraipen Batzordeko idazkari gisa Kanpo Sustapen eta Turismo Zerbitzuko teknikari bat arituko da, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Jarraipen-batzordearen osaeran, bi sexuen ordezkaritza orekatua hartuko da kontuan, eta horrek esan nahi du gutxienez biak ordezkatuta daudela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Era berean, kontuan hartu behar da

Séptima. Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

1. El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte del Servicio de Promoción Exterior y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

2. Además, las partes comparecientes acuerdan el establecimiento de una Comisión de Seguimiento del Convenio, como instrumento para lograr la adecuada cooperación y coordinación en la consecución de los objetivos del Convenio.

3. Esta Comisión de Seguimiento del Convenio, estará constituida por tres representantes. En representación de la Diputación Foral de Bizkaia, la persona titular de la Dirección General de Competitividad Territorial y Promoción Exterior o persona en quien delegue, en calidad de presidente, y en representación de la Fundación Industrias Creativas su presidente o persona que le supla, en calidad de vocal. Asimismo, como secretaria de la Comisión de Seguimiento actuará una persona técnica del Servicio de Promoción Exterior y Turismo, con voz y sin voto.

4. En la composición de la comisión de seguimiento se tendrá en cuenta una representación equilibrada de ambos sexos, entendiendo que ello supone que al menos que ambos estén representados, tal y como está previsto en el artículo 3.10 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018.

batzorde horretako kideak betetzen duten karguagatik direla batzordekideak, eta, beraz, beharrezkoa izanez gero, kasu horietarako araudi horretan jasotako salbuespena aplikatuko da.

Asimismo, debe tenerse en cuenta que las personas que forman parte de esta comisión lo son por el cargo que ocupan por lo que de ser necesario se aplicará la excepción contenida en la referida normativa para estos casos.

5. Hauexek izango dira batzordearen eginkizunak:

- Hitzarmen honetan bildutako xedeak nahiz alderdiek beren gain hartutako konpromisoak betetzen diren jarraitzea.

- Hitzarmena interpretatu eta betetzeko sortzen diren arazoak ebaztea; hala ere, ez zaio kalterik eragingo horretarako eskumena duten jurisdikzioko organoen fiskalizatzeari.

5. Las funciones de esta Comisión serán:

- Seguimiento del cumplimiento tanto de los objetivos contenidos en el presente convenio como de los compromisos adquiridos por las partes.

- La resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto al convenio, sin perjuicio de su fiscalización por los órganos jurisdiccionales que resulten competentes para ello.

6. Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea gutxienez behin bilduko da urtean, eta horrez gainera, alderdietako batek beharrezkotzat jotzen duen guztietan ere bai.

6. La Comisión de Seguimiento del convenio se reunirá al menos una vez durante el año y cuando se considere necesario por cualquiera de las partes.

7. Fundación Industrias Creativas-ek Bizkaiko Foru Aldundiko organoen egiaztapen-jarduketen mende jarri behar du, erakunde laguntzaileekin eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten hirugarren pertsonekin batera.

7. La Fundación Industrias Creativas, estará obligada a someterse a las actuaciones de comprobación por parte de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con las entidades colaboradoras y terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación.

## Zortzigarrena. Justifikazio epea eta modua.

1. Fundación Industrias Creativas-ek nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin duela eta haren helburua bete duela ere.

2. Urte bakoitzaren justifikazioa gehienez ere hiru hilabeteko epean egin beharko da, ekitaldi bakoitzari dagokion BIMEren gauzatzea amaitzen den egunetik aurrera. Hau da, justifikazioa aurkezteko azken eguna:

## Octava. Plazo y forma de justificación

1. La Fundación Industrias Creativas está obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.

2. La justificación de cada una de las anualidades deberá realizarse en un plazo máximo de tres meses a partir de la fecha de finalización de la ejecución del BIME correspondiente a cada ejercicio. Es decir, la fecha máxima para presentar la justificación será:

Fundación Industrias Creativas

Bizkaia foru aldundia diputación foral

a) 2024ko ekitaldiari dagokion urterokorako, 2025eko martxoaren 31.

b) 2025eko ekitaldiari dagokion urterokorako, 2026ko martxoaren 31.

c) 2026. urteko ekitaldirako, 2027ko martxoaren 31.

3. Ezarritako baldintzak bete izanaren eta hitzarmen honetan aurreikusitako helburuak lortu izanaren azken justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu beharko da.

4. Ekitaldi bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikuluan ezarritako modalitatea erabiliko da. Beraz, onuradunak justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko du, Kontabilitate eta Auditoretza Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko gisa inskribatutako kontu-auditore baten txostenarekin batera, egin beharreko justifikazio bakoitzean.

5. Kontu-auditoreak berrikusi beharreko justifikazio kontuan ondoko agiri hauek bilduko dira:

a) Diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria bat, egin diren jarduketak eta lortu diren emaitzak adierazten dituena.

Memoriak, hala dagokionean, sexuaren eta jatorri geografikoaren arabera banatuta eduki beharko du informazioa, salbu eta posible ez den kasuetan: halako zirkunstantziak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

b) Justifikatu beharreko aldi bakoitzean egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek dituena:

a) Para la anualidad correspondiente al ejercicio 2024, el 31 de marzo de 2025.

b) Para la anualidad correspondiente al ejercicio 2025, el 31 de marzo de 2026.

c) Para la anualidad correspondiente al ejercicio 2026, el 31 de marzo de 2027.

3. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en este convenio deberá presentarse a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

4. En cada uno de los ejercicios la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos será la de la modalidad establecida en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por lo que la beneficiaria deberá presentar, en cada una de las justificaciones a realizar, una cuenta justificativa acompañada de un informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría.

5. La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora de cuentas contendrá la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

La memoria deberá, en su caso, proporcionar la información desagregada por sexo y procedencia geográfica, salvo en aquellos supuestos en los que no resulte posible, circunstancia que deberá quedar debidamente justificada.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas en cada uno de los periodos a justificar, que contendrá:

1) Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera- gastuen egoera-orria. Sarrera-gastuen orri hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera egin beharko da.

1º. Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto subvencionado objeto del convenio. Este estado de ingresos y gastos deberá realizarse según el modelo establecido al efecto que se encuentra accesible en la página web del Departamento de Promoción Económica.

2) Aurreko paragrafoan adierazitako gastuen egoera-orria osatzen duten partida bakoitzerako, diruz lagundutako jardueraren gastuei buruzko datu hauek adieraztea: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntzaren eskaera egitean aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbideratzeak ere adieraziko dira.

2º. Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado anterior, indicación de los siguientes datos relativos a los gastos de la actividad subvencionada: identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. También se indicarán las desviaciones acaecidas relativas al presupuesto aportado al realizar la solicitud de la subvención.

Datu horiek Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualak bidali ondoren, sistemak automatikoki sortuko du proiektuaren gastuen zerrenda.

Una vez enviados estos datos por la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, el sistema generará automáticamente una relación de gastos del proyecto.

3) Gastuen zerrendan jasotako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideak.

3º. Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación de gastos.

4) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten dirulaguntzak, laguntzak edo diru-sarrerak edo baliabideak, zenbatekoa eta jatorria adierazita, diru-sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko.

4º. Indicación de las subvenciones, ayudas o ingresos o recursos que hayan financiado la actividad subvencionada, especificando el importe y su procedencia, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos.

Zenbatekoa laginketa bidez esleitzen denean, hitzarmen honen helburu diren jarduketei dagokien gastu osoan ehunekoa zehatzen duen kalkulu sistema eman beharko da.

En los casos en los que se asigne un importe mediante prorrateo, se deberá aportar el sistema de cálculo que permita determinar el porcentaje de gasto total asignado a las actuaciones objeto de este convenio.

c) Ezarritako gainerako betebeharrak dirulaguntzen zabalkundea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialak erabiltzea, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk- bete izanaren

c) Memoria justificativa del cumplimiento del resto de las obligaciones impuestas -difusión de la subvención, cumplimiento de la normativa de transparencia, uso de las lenguas cooficiales, igualdad de género, otras

Fundación
Industrias Creativas

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

justifikazio memoria betebehar horiek bete direla egiaztatzen duten txosten, adierazpen eta dokumentuak erantsita. Justifikazio-memoria hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean horretarako ezarritako ereduaren arabera beteko da.

políticas sociales- adjuntando los informes, declaraciones y documentos que acrediten su cumplimiento. Dicha memoria justificativa se cumplimentará de acuerdo con el modelo dispuesto a tal efecto en la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

6. Aldi bakoitza justifikatzeko unean ikusten bada gastu-kontzepturen batean onar daitekeen guztizko zenbatekoa aurrekontuan planteatutako zenbatekoa baino txikiagoa dela, beste gastu-kontzeptu batzuetan goranzko desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, betiere agiri bidez behar bezala justifikatuta badago, gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko mugarekin. Horretarako, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontzeptuen araberako aurrekontu-banaketari jarraituko zaio. Justifikatutako zenbateko osoak, klausula honetan ezarritako irizpideen arabera baimendutako aldaketak kontuan hartuta, jasotako dirulaguntza justifikatzeko aukera eman beharko du. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura izapidetuko da.

6. Si en el momento de la justificación correspondiente a cada uno de los periodos se observa que el importe total admisible en alguno de los conceptos de gasto es inferior al importe planteado en el presupuesto, se podrá compensar mediante desviaciones al alza en otros conceptos de gasto, siempre y cuando esté debidamente justificado documentalmente, con la limitación de no superar la subvención máxima. Para ello se tendrá en cuenta la distribución de presupuesto por conceptos señalada en la solicitud de la ayuda. El importe total justificado, teniendo en cuenta las modificaciones permitidas en base a los criterios establecidos en esta cláusula, deberá permitir la justificación de la subvención percibida. En caso contrario se tramitará el correspondiente procedimiento de incumplimiento.

7. Gastu bakoitzaren frogagiriak eta egiaztagiriak erakunde onuradunaren esku utzi beharko dira, egin daitezkeen egiaztapen- eta kontrol-jardueretarako, gutxienez hitzarmenaren indarraldi osoan eta, nolanahi ere, ezarri beharreko araudiak dokumentazio horren izaeraren arabera zehazten duen denboran.

7. Los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos deberán conservarse en poder de la entidad beneficiaria para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar, al menos durante toda la vigencia del convenio y, en todo caso, el tiempo que determine la normativa aplicable atendiendo a la naturaleza de dicha documentación.

8. Auditoreak egin behar duen txostenaren irismena eta edukia Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduak (foru sektore publikoko diru-laguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartu dituen horrek) 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Araudiko (martxoaren 23ko

8. El alcance y contenido del informe a emitir por la persona auditora será el establecido en los artículos 3 y 7 de la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el artículo

34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua) 59. artikuluan jasota daude.

59 del Reglamento de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

9. Espedientea ixteko berrikuspenean hurrengoak egiaztatuko dira:

a) hitzarmen honetan aurreikusitako jarduera guztiak burutu dira,

b) erakunde onuradunak ekintza honen gainean aurkeztu dituen justifikazio guztiak, denetara, jasotako laguntza publikoen edota pribatuen bestekoak izan behar dira, bestela kopuru hori gainditu behar dute,

c) helburua erabakian ezarritako terminoetan bete da eta bi alderdien gogobetetasuna lortu da.

9. En la revisión para el cierre del expediente se comprobará que:

a) se han ejecutado todas las actuaciones previstas en este convenio,

b) la totalidad de las justificaciones aportadas por la entidad beneficiaria relativas a esta actuación son iguales o superiores al conjunto de ayudas públicas y/o privadas percibidas,

c) el objeto se ha cumplido en los términos del convenio y a satisfacción de ambas partes.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea.

1. Erakunde onuradunak, ekitaldi bakoitzean diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Bizkaiko Foru Aldundiari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea; erakundeak baimena eman dezake ustekabeko arrazoietan edo jarduketaren xedearen onerako beharrezko arrazoietan oinarrituta denean eta betiere akordioaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste inoren eskubideen kaltetan jotzen ez bada.

2. Eskaera hori ekitaldi bakoitzean diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko beharrezko izapideak egin daitezen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldaketarako eskaerari buruzko

Novena. Régimen de modificación del convenio.

1. La entidad beneficiaria podrá solicitar de la Diputación Foral de Bizkaia, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada de cada uno de los ejercicios, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad del acuerdo y no se dañen derechos de terceros.

2. Dicha solicitud debe realizarse al menos dos meses antes de que finalice el plazo para ejecutar la actividad subvencionada de cada uno de los ejercicios, al objeto de realizar la tramitación necesaria para modificar la resolución de concesión, según el art. 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En caso de no

ebazpen berariaz eman ezean, aldaketa ukatu egin dela ulertuko da.

producirse resolución expresa referente a dicha solicitud de modificación, se entenderá que dicha modificación no ha sido concedida.

Ekitaldi batean emakida-ebazpena aldatzeak ez du eraginik izango hurrengo ekitaldietarako emakida-ebazpenean ezarritako baldintzetan, aldaketa erabakitzen duen ebazpenean berariaz hala ezartzen ez bada.

La modificación de la resolución de concesión en uno de los ejercicios no afectará a las condiciones establecidas en la resolución de concesión para los ejercicios siguientes, salvo que así se establezca expresamente en la resolución que acuerde la modificación.

Ekitaldi baterako emakida-ebazpenaren aldaketa ezin izango da berriz aldatu hurrengo ekitaldiei eragiten dieten aldaketa-eskaera berriak daudela aprobetxatuta. Halaber, ebazpena ezin izango da aldatu amaitutako ekitaldiei eragiten dien zatian.

La modificación de la resolución de concesión para uno de los ejercicios no podrá volver a ser objeto de modificación con ocasión de nuevas solicitudes de modificación que afecten a los ejercicios siguientes. Tampoco podrá ser objeto de modificación la resolución en la parte que afecte a ejercicios ya vencidos.

3. Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

3. El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

4. Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arautegiaren 71. artikuluak ezarritakoari jarraiki, dirulaguntzaren entitate onuradunak adieraziz gero justifikazioan dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan ebazpenaren aldaketa eragin ahal izan dituzten aldaketak gertatu direla, onesteko aurretiko administrazio-baimenaren tramitea egin gabe, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du, baldin eta hori onartzeak hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie, horrek guztiak onuraduna 5/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera egotz dakizkiokeen zehazpenetatik salbuetsi gabe.

4. Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento Foral de Subvenciones, cuando la entidad beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

Fundación
Industrias Creativas

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## Hamargarrena. Azpikontratatzeko baldintzak.

1. Proiektu hau garatzeko, Fundación Industrias Creativas-ek hirugarren pertsonak kontratatu behar ditu, ez baitauka 2024, 2025 eta 2026 urteetan BIME antolatzeko eta garatzeko behar adina langile.
Era berean, osorik edo zati batean azpikontratatu ahal izango du, baita diruz lagundutako jardueraren % 100eraino ere. Nolanahi ere, Fundación Industrias Creativas-ek diruz lagundutako proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen lidergoari eta antolakuntzari eta zuzendaritzari eutsiko die.

2. Hirugarren pertsona batzuekin hitzartutako jardueraren kostuak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino gehiago bada, orduan, kontratua idatziz formalizatuko da eta baimena eskatu beharko zaio Ekonomia Sustatzeko sailaren foru diputatuari, 5/2005 Foru Arauaren 27.3 artikuluari dagokionez. Beronek 45 egun balioduneko epearen barruan ebazpena eman beharko duelarik. Berariazko ebazpenik eman ezean, baimena ukatutzat joko da administrazio-isiltasun bidez.

## Hamaikagarrena. Emandako dirulaguntza hedatzea.

Fundación Industrias Creativas-ek jaso duen dirulaguntza publikoa dela erakusteko publizitate egokia egin behar du. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudia eta finantzaketa publikoari buruzko testua sartuko ditu karteletan, oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, komunikabideetan egindako aipamenetan, eta diruz lagundutako xederako egokiak diren eta aurrekoen antzeko eraginkortasuna izan dezaketen guztietan.

## Décima. Condiciones de subcontratación.

1. Para el desarrollo de este proyecto la Fundación Industrias Creativas se ve obligada a contratar con terceras personas puesto que no dispone de suficiente personal para la organización y desarrollo de BIME en los años 2024, 2025 y 2026. También podrá subcontratar total o parcialmente, incluso hasta el 100% de la actividad subvencionada. En todo caso, la Fundación Industrias Creativas mantendrá el liderazgo y la organización y dirección de los medios personales y materiales necesarios para la realización del proyecto subvencionado.

2. Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000,00 euros, la subcontratación se celebrará por escrito y deberá contar con la previa autorización de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, de acuerdo con lo establecido en el artículo 27.3 de la Norma Foral 5/2005, quien resolverá en un plazo de 45 días hábiles. En caso de no mediar resolución expresa, la autorización se considerará denegada por silencio administrativo.

## Undécima. Difusión de la subvención concedida.

La Fundación Industrias Creativas deberá adoptar las medidas correspondientes para publicitar de forma adecuada el carácter público de la subvención recibida mediante inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Bizkaia, leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien menciones realizadas en medios de comunicación y otras que resulten adecuadas al objeto subvencionado y de eficacia equivalente a las mencionadas.

Fundación
Industrias Creativas

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Hamabigarrena. Hitzarmenak azkentzea.

1. Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzean.

2. Erakunde onuradunak hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango du.

3. Hitzarmena iraungitzeak ez dakar berarekin erakunde onuradunari hitzarmenetik eratorritako betebeharrak iraungitzea.

Duodécima. Extinción del convenio.

1. El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.

2. El incumplimiento de las obligaciones derivadas del convenio por parte de la entidad beneficiaria facultará a la Diputación Foral de Bizkaia para su resolución.

3. La extinción del convenio no implica la de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas del mismo.

Hamahirugarrena. Dirulaguntza borondatez itzultzea.

1. Entitate onuradunak bere ekimenez itzuli ahalko du dirulaguntza hau, Administrazioak aurrez eskatu gabe, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Lurralde Lehiakortasuna eta Kanpo Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi ondoren.

2. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak egindako ordainketa-gutunak erabili behar dira.

Decimotercera. Devolución de la subvención por propia iniciativa.

1. La entidad beneficiaria tendrá la posibilidad de proceder a la devolución voluntaria de la presente subvención por propia iniciativa sin el previo requerimiento de la Administración, previa comunicación a la Dirección General de Competitividad Territorial y Promoción Exterior del Departamento de Promoción Económica.

2. La devolución a iniciativa de la entidad beneficiaria se realizará a través de cartas de pago confeccionadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.

Hamalaugarrena. Erakunde onuradunak laguntzeko betebeharra.

Pertsona onuradunak, erakunde laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten gainerakoek laguntza eman behar dute, eta foru administrazioko organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza-kontroleko eginkizunak eratxikita dituzten organoek

Decimocuarta. Obligación de colaborar de la entidad beneficiaria.

La entidad beneficiaria, las entidades colaboradoras y las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación están obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos

Fundación Industrias Creativas

Bizkaia foru aldundia diputación foral

eskatzen dizkieten agiri guztiak eman beharko dituzte; 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, de conformidad con lo dispuesto en artículo 41 de la Norma Foral 5/2005.

Hamabosgarrena. Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen babesaren arloan hitzarmen honi aplikatu behar zaizkion arauak hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

Decimoquinta. Protección de datos de carácter personal.

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Hamaseigarrena. Araubide juridikoa.

1. Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta bertan xedaturikoaz gain, hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua zein aldatu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida eta gainerako arauzko xedapenak.

2. Aurreko arauetan aurreikusi ez den guztirako, hauexek aplikatu beharko dira: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoena, 169/2014 Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra, eta zuzenean edo analogiaz aplikatu beharreko administrazio edo substantibo zuzenbideko beste edozein arau.

Decimosexta. Régimen jurídico.

1. Este convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.

2. Para todo lo no previsto en las anteriores normas, será de aplicación la Ley 40/2015, de régimen jurídico del Sector Público, el texto refundido del Reglamento Foral Presupuestario 169/2014, así como cualquier otra norma de derecho administrativo o sustantivo que directa o por analogía pueda resultar de aplicación.

3. Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente convenio, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

4. Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo, conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

## Hamazazpigarrena. Arau-hausteak eta zehapenak.

Dirulaguntzei buruzko Foru Arauko IV. tituluan xedaturikoa aplikatuko da.

## Decimoséptima. Infracciones y sanciones.

Se aplicará lo dispuesto en el título IV de la Norma Foral de Subvenciones.

## Hamazortzigarrena. Helburu bera duten beste dirulaguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

1. Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauek ezarritakoa ezertan eragotzi gabe. Hala ere, dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluak ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

## Decimoctava. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

1. La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral de Subvenciones, 5/2005, de 31 de mayo, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Fundación
Industrias Creativas

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

2. Entitate onuradunak, hitzarmen honen xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortuz gero, modu sinesgarrian jakinarazi beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Lurralde Lehiakortasuna eta Kanpo Sustapena Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Bere ekimenez dirulaguntzaren bat itzuli badu, itzulketa-gutunaren kopia erantsiko du.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

2. La entidad beneficiaria, en caso de obtener otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades objeto de este convenio, deberá comunicarlo de modo fehaciente a la Dirección General de Competitividad Territorial y Promoción Exterior del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, acompañando copia de la carta del reintegro que, en su caso, hubiera realizado por propia iniciativa.

Y para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.